



## UNITATE DIDAKTIKOA: BELDUR BARIK

### Helburu Nagusiak

- Neska-mutilek indarkeria sexistaren aurkako produktu artistiko bat **ezagutzea eta aztertzea**
- Neska-mutilek **animatzea** indarkeria horri ezetz esateko adierazpen artistikoak sortzera.

### Helburu Zehatzak

- Neska-mutilek **hausnartzea** tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen egoerari buruz.
- **Ukertzea** horrelako egoerak gazteen arteko bikote heterosexualen harremanetan ere badaudela
- Informazioa ematea, **kontura daitezen** berdintasunean oinarritutako harremanarekin bat ez datozen jarreraz eta jokamoldeez.
- Informazio ematea **zalantzan jar ditzaten** tratu txarrak jasandako emakumeei buruzko mito eta uste faltsuak.
- Informazioa ematea **zalantzan jar ditzaten** tratu txarrak eragiten dituzten gizonei buruzko mito eta uste faltsuak.

### Metodologia

Unitate honetan **Beldur Barik** abestian oinarritutako lan proposamena aurkituko duzu. Abestia 2009an editatu zen, Berdinsareak antolatutako azaroaren 25eko kanpainaren barruan (Eudel, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hartu dute parte) Kanpainaren izena abestiaren izena izan zen, *Beldur Barik*. Legazpiko Udalak parte hartze aktiboa izan zuen kanpainan. Hori dela eta, abestiaren bideoa Legazpin grabatu zen, baina jardueran herri askotako gazteek kolaboratu zuten, indarkeria matxistari ezetz esanez.

Lanari etekin handiago ateratzeko, entzun abestia eta ikusi bideoa hiru-lau aldiz. Making off-ari ere ondo begiratu (loturan klikatuta jaitsiko duzu) Material osagarri bezala, material horien kanpainari buruzko bideoa ikus dezakezu.